

Endokrinologia Zerbitzua

Gaitasunetan Oinarritutako Prestakuntza Espezializatua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

Irakaskuntza-ikuspegia:
Zazpi gaitasun-eremutan oinarritutako profil profesionala



Konpromisoa: Irakaskuntza-ziurtapena gizarte-erantzukizun gisa

Erreferentzia: Morán-Barrios J. *Un nuevo profesional para una nueva sociedad. Respuestas desde la Educación Médica: la formación basada en competencias*. Rev. Asoc. Esp. Neuropsiq. 2013; 33 (118): 385-405.
<http://www.revistaen.es/index.php/aen/article/view/16614/16454>



Endokrinologia-Nutrizio Zerbitzua – Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza

Espezializatuko Unitatea . [CC BY-NC-ND](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/)



Endokrinologia eta Nutrizioa

Endokrinologia eta Nutrizioaren espezialitate medikoak sistema endokrinoko gaixotasunen eta gaixotasun metabolikoen azterketa eta tratamendua barne hartzen ditu, baita nutrizio-prozesuaren ondoriozko gaixotasun guztiena ere. Diagnosi-tekniken eta neurri dietetikoaren eta terapeutikoen gaineko ezagutza teoriko eta praktikoa barne hartzen ditu, hala nola arlo horiei buruzko medikuntza prebentiboko arauen gainekoa. Endokrinologia eta Nutrizioaren espezialistak du eskumena bizi-zikloan zehar izan daitezkeen espezialitate horretako patologien aurrean arreta ambulatorioa nahiz ospitalekoa emateko.

Jarraian, hauek zehaztuko ditugu:

- Nor garen
- Non gauden
- Irakaskuntza-eskaintza
- Prestakuntza-ibilbidea (txandatzea)
- Ikerketa
- Prestakuntzaren ebaluazioa

Nor garen



Zerbitziburua:
Sonia Gaztambide Sáenz doktorea



Tutorea
Pedro González
Fernández doktorea



Tutorea
Blanca González
Jaúregui doktorea



Tutorea
Dolores Moure
Rodríguez doktorea



Tutorea
Elsa Fernández
Rubio doktorea

Gurutzetako Ospitalean, Endokrinologia eta Nutrizioko espezialitatea 1972ko otsailean José Antonio Vázquez García doktorea ospitalean lanean hastearekin batera sortu zen. Sail gisa 1977ko abuztuan eratu zen, eta Zerbitzu gisa, aldiz, 1987an. Hasi-hasieratik ekin zitzaion barne medikuntzako egoiliarren eta espezialitateen prestakuntzari; atxikitako egoiliarren kopurua aldakorra da (urtean bat edo bi izaten dira).



Otsailaren 8ko 183/2003 Errege Dekretuaren arabera, espezialitatearen izena ENDOKRINOLOGIA ETA NUTRIZIOA da, eta 4 urteko iraupena du. Espezialitatearen definizioa eta horri loturiko prestakuntza-programa Espezialitateko Espainiako Batzordearen jarraibideen arabera dira (Hezkuntza eta Zientzia Ministerioko Unibertsitate eta Ikerketako Estatu-idazkaritzaren irailaren 20ko SCO/3122/2006 AGINDUA), eta lau urteko iraupena du.

Ospitaleak, hirugarren mailako ospitalearen ezaugarriak eta 400.000 biztanleko arreta-eremua izanik, oso kasuistika zabala bermatzen du, eta horrek Endokrinologia Orokorren alderdi guztietan kalitatezko prestakuntza jasotzea ziurtatzen du. Egoiliarak Zerbitzuko jardura guztietan parte hartuta prestatuko dira. Ospitaleak, gainera, hormonon laborategi bat, endokrinologia pediatrikoko sail bat eta endokrinologian aplikatutako biologia molekularreko ikerketa-unitate bat ditu.

Zerbitzua sortu zenetik, José Antonio Vázquez García eta Sonia Gaztambide Sáenz doktoreak aritu dira zuzendari-lanetan.

Zerbitzuaren mugarri esanguratsuenak hauek dira:

- Eguneko ospitale bat eratzea, nagusiki hezkuntza-helburuetarako.
- Kontsulta monografikoen ezarpen mailakatua.
- Genero-identitatearen trastornoen unitatea garatzea Euskadin.
- Endokrinologiako protokoloak formatu digitalean eguneratzea.
- Ospitalean diabetes-tratamendua emateko protokoloa garatzea.
- Ospitaleko batzordeetan parte hartzea: kirurgia bariatrikoa, nutrizioa, tumore tiroideoak, tumore neuroendokrinoak, tumore hipofisarioak, ikerketa eta liburutegia.
- CIBERDERMen kide izatea, talde kolaboratzaile aktibo gisa, Luis Castaño doktorea (Ikerketa-unitatea) koordinatzailea izanik.
- CIBERERekiko lankidetzatza.
- ENDO-Ern sareko Kide (ezohiko patologia hipofisarioa, diabetes arraroak, metabolismo kaltzio-fosforoa, tumore neuroendokrino esporadikoak eta familiarrak)

Honako hau da lantaldea:

- Zerbitzuburu bat
- Atalburu bat
- 12 mediku adjuntu (horietako bi Nutrizio eta Dietetikako unitatean ere ari dira eta batek lanaldi murriztua du).



Zerbitzuak honako laguntza-arlo edo -unitate hauek ditu:

1. **Ospitaleratze eremua**

A) Sistema endokrinoari eta/edo metabolismoari eta/edo nutrizioari eragiten dioten gaixotasunak direla medio, gure ardurapean ospitaleratutako pazienteei arreta ematea.

Eskaintzen dituenak:

- Irudi-probak Erradiologia Zerbitzuan. Zerbitzuan bertan ekografoa erabilgarri
- Erradiologia esku-hartzailea, paratiroideko, guruin suprarrenaletako eta sinu petrosoetako kateterismo hautakorretan laginak hartzeko
- INBODY inpedantziometroa
- Kirurgia endokrinologiko espezializatua (tiroidea, paratiroidea, suprarrenalak)
- Neurokirurgia (kirurgia transesfenoidala)
- Obesitatearen kirurgia
- Kirurgia plastikoa
- Biologia molekularreko ikerketa unitatea
- Eguneko jangela anorexia nerbioso kasuetarako

B) Beste zerbitzu batzuetan ospitaleratuta egonik gaixotasun endokrinoa, metabolikoa edo nutrizionala duten pazienteen interkontsulta-orrien ebazpena.

C) Proba funtzional hormonalak.

D) Zerbitzuan edo ospitaleko beste zerbitzu batean ospitaleratutako pazienteen hezkuntza diabetologikoa Endokrinologiako Eguneko Ospitalean, kontsulten eremuan.

2. **Ospitaleko kanpo-kontsulten eremua**

Endokrinologia orokorreko kontsulta

Kontsulta monografikoak:

- Diabetes eta haurdunaldiaren kontsulta.
- Elikadura-jokabidearen nahasmenduen kontsulta.
- Kirurgia bariatrikoaren kontsulta.
- Larruazalpeko intsulina-infusio jarraituaren bidezko terapiaren kontsulta.
- Tiroide-minbiziaren kontsulta.



- Hipotalamo-hipofisiko patologiaren kontsulta.
- Fibrosi kistikoaren kontsulta.
- Genero-identitatearen trastornoen kontsulta.
- Dislipemien eta arrisku baskularraren kontsulta
- Metabolismo fosfo-kaltzikoaren kontsulta.
- Ekografia Tiroidearen kontsulta
- Suprarrenalak eta goadak kontsultatzea
- Disfagia-kontsulta.

3. **Eguneko ospitalea**

Hauei ematen zaie arreta:

- Zetosirik gabeko hipergluzemia edo hiperosmolaritate handirik gabeko zetosi arineko hipergluzemia duten pazienteak, ospitaleko kanpo-kontsultetatik, anbulatorioetako kontsultetatik zein ospitaleko larrialdietako zerbitzutik etorriak.
- Bertoko kontsultetako pazienteak, intsulinizaziorako.
- Zetosi gabeko edo zetosi arin/moderatuko diabetes hasiera izanik, diabetesaren gaineko aurretiazko ezagutzak edo ikasteko gaitasun handia eta egunero bertaratzeko aukera dutenak.
- Kontrol metaboliko txarreko pazienteak, arazoak hautemateko eta prestakuntza zehatz zuzendua emateko.
- Konplikazio kronikoak hautemateko eta/edo kontrolatzeko azterketa osoa behar duten pazienteak.
- Larruazalpeko intsulina-infusio jarraiturako ponpak ezartzea.
- Glukosa etengabe monitorizatzeko sistemak/flasha ezartzea..
- Eguneko ospitalea irekita dagoen bitartean zaintza beharrezkoa den larrialdi endokrinologiko oro.

4. **Ospitaletik kanpoko kanpo-kontsulten eremua**

- Kontsulta-arreta 4 anbulatorioetan (Barakaldo, Portugalete, Deustu eta Ortuella), pazienteen irispidea errazteko. Enkarterriak eta Burgoseko iparraldea ospitalean bertan artatzen dira.
- Kontsulta ez-presentzialak asistentzia-arlo guztietan.
- Konplexutasun txikieneko patologiak artatzen dira, ospitalean artatu beharrezkoa hautatuta.
- Lehen mailako arretarekiko elkarreragina errazten du.



Osakidetza

EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA ENKARTERRI CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (España)



Servicio de Endocrinología

Urteko jarduna hemen eskura daiteke:

[URTEKO MEMORIA. EZKERRALDEA ENKARTERRI GURUTZETAKO ESI](#)



Non gauden

Gure **Endokrinologia** Zerbitzua Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Kanpo Kontsulten 2 eraikineko 1. solairuan dago:

Gurutzetako plaza z.g. Barakaldo 48903 Barakaldo, Bizkaia

[IKUSI ospitalea Google Maps-en](#)

Zerbitzuko idazkaritza

Kanpo Kontsultak 2 eraikineko 1. solairuan dago.

Idazkari-administrariak dira: Elisa Euba Mujika eta Elena González Bediola.

Harremanetarako telefonoa: +34-94.600.6350

Helbide elektronikoa: Secretaria.EndocrinologiaCruces@osakidetza.eus

mariasonia.gaztambidesaenz@osakidetza.net





Hezkuntza-eskaintza

Gure erakundeari eta laguntza-jarduera handiari esker, espezialisten prestakuntza eskaini eta bermatu dezakegu espezialitatearen alderdi nagusi guztietan:

- a. Hipotalamo-hipofisi alterazioak eta alterazio pinealak
- b. Hazkundearen eta garapenaren alterazioak: GHren eskasia.
- c. Tiroide-gaixotasunak.
- d. Guruin suprarrenaletako gaixotasunak.
- e. Jatorri endokrinologikoko hipertentsioa.
- f. Paratiroide-guruinen, metabolismo fosfokaltzikoaren eta magnesioaren alterazioak.
- g. Hormonak ekoizten dituzten urdail-hesteetako eta pankreaseko tumoreak.
- h. Jariaketa hormonal ektopikoa.
- i. Neoplasia endokrino anizkoitza eta sistema endokrino hedatsuaren alterazioak.
- j. Diabetes mellitus eta metabolismo hidrokarbonatuaren alterazioak.
- k. Hipogluzemiak.
- l. Desnutrizioa.
- m. Elikadura-portaeraren nahasmenduak.
- n. Obesitatea.
- o. Lipidoen metabolismoaren trastornoak.
- p. Metabolismoaren sortzetiko erroreak.
- q. Alterazio hidroeletrolitikoak.

Gainera, arreta berezia eskaintzen diegu honako patologia edo prozedura konplexu hauei:

- a. Hipotalamo-hipofisiko tumoreak.
- b. Genero-identitatearen trastornoak.
- c. GHren eskasia helduetan.
- d. Oinarri heredofamiliarreko neoplasia endokrino anizkoitzak.

1. BAME

Irakaskuntza-jarduera ez zaie soilik **Endokrinologia eta Nutrizioa espezialitateko BAMEei** zuzentzen; ospitaleko eta arreta-eremukoko beste ospitale bateko (Barakaldoko San Eloy Ospitaleko) **beste espezialitate batzuetako BAMEei** ere zuzentzen zaie, arreta ospitaleratze-eremuan eta kanpo kontsultenean banatuta.

1.1 Programa teorikoa

Espezialitateko programa modu praktikoan lantzen da, laguntza-jardunaren eta saio kliniko eta bibliografikoen prestakuntzaren bitartez.



1.2. Saio klinikoak

Udako hiru hilabeteak eta Aste Santuan eta Gabonetan bi aste kenduta, egunero egiten dira saio klinikoak, eta jarraibide hauen arabera egituratuta daude:

Astelehena	<u>08:00</u>	Kirurgia-saioa: Esku hartu beharreko kasuak aurkeztea eta aztertzea	Zerbitziburua Solairuko adjuntua Solairuko BAMEa Kirurgia zerbitzua BAME-ondokoaren ikuskaritza
Asteartea	<u>14:00</u>	Baterako saioa hormonon laborategiarekin, endokrinologia pediatrikoko sailarekin eta ikerketa-unitatearekin. Hileko Saio bibliografikoa	Talde guztiak izango dira arduradunak, astebeteko txandatan Lau talde, talde bat asteko, arduradun diren ikuskatzeen gaineko txostenarekin
Asteazkena	<u>08:00</u>	Protokoloak, saiakuntza klinikoak, kongresuen gaineko txostenak, beste zerbitzu batzuekin bilerak, Kasu klinikoa - Literaturaren berrikuspena Hilean behin, bilera erizaintzarekin	Arduraduna BAME-gainbegiraletza adjuntua Guztiak
Osteguna	<u>08:00</u>	Protokoloak, saiakuntza klinikoak, kongresuen gaineko txostenak, beste zerbitzu batzuekin bilerak, Kasu klinikoa - Literaturaren berrikuspena	Guztiak BAME-gainbegiraletza-adjuntua
Ostirala	<u>14:00</u>	Solairuko kasuak, ospitaleratuak edo aste horretan alta emandakoak. Pazienteak larunbatean datorrenari pasatzea Ospitaleko / ospitaletik kanpoko kontsultetako kasu klinikoak, diagnostikoan edo terapian zailtasunak ageri dituztenak edo ezohikoak direnak, Zerbitzuko gainerakoei jakinarazteko	Solairuko medikua eta BAMEa arduradunak
	<u>08:30</u>	Saioa Neurokirurgia Zerbitzuekin, kasu berrien diagnostikoaren arabera	Hipofisi-patologiako batzordea. Moure dk.
	<u>14:00</u>	Aldian behingo saioak ospitaleko beste zerbitzu batzuekin edo batzuetan	Pediatria, Dokumentazio klinikoa, Erradiologia, etab.



1.3. Bilerak eta kongresuak

- Bertaratzea ez ezik, komunikazioaren batekin parte hartzea ere espero da. Bertaratzeak ezagutza zientifikoak trukatzeko, beste zentro batzuekin konparatzeko, lan-aukeretarako... aukera ematen die.
- -R-1ekoak Euskadiko Endokrinologia eta Nutrizio Elkartearen urteroko kongresuetara joaten dira.
- -R-2, R-3 eta R-4koak Espainiako Endokrinologia eta Nutrizio Elkartearen eta Diabetesaren Espainiako Elkartearen urteroko kongresuetara joaten dira, programatutako txanden eta baliabideen arabera.

1.4. Ikastaroak

- Irakaskuntza Batzordeak adierazitako ikastaroak egitea.
- Irakaskuntza Batzordeak [ikastaroak \(ikusirik irakaskuntza-ekintzak\)](#) antolatzen ditu espezialitate guztietako oinarrizko prestakuntza komuna osatzeko. Ikastaro gehienak derrigorrezkoak dira azken titulua lortu ahal izateko.
- Ospitaleak **saio orokorrak** egiten ditu hilean asteazken batean edo bitan, 8:30ean, ekitaldi-aretoan. Saiok funtsezkoak dira prestakuntza integral bat lortzeko, espezialitatea gorabehera; izan ere, haien bitartez, bereziki interesgarriak diren kasu klinikoei buruz ikasteaz gain, ospitalearen, bere zerbitzuen eta unitateen funtzionamenduaren berri jasotzen da, eta haien arteko harremana eta batzorde ezberdinen jarduera ezin garrantzitsuagoa ezagutzen da.
- Espainiako Endokrinologia eta Nutrizio Elkarteak antolatutako ikastaroetara joatea (Endokrinologiako bat eta Nutrizio Klinikoko beste bat), R-3 eta R-4 aldian, eta Diabetesaren Espainiako Elkarteak antolatutakora joatea (R-3 edo R-4 aldian), eta, aldian behin, inplikaturako elkarteek antolatzen dituzten ikastaro monografikoetara, txanden eta baliabideen arabera.

2. Graduaurrekoa

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak:
Sonia Gaztambide Sáenz, irakasle titularra.



Javier Santamaría Sandí eta Federico Vázquez, irakasle elkartuak.

3. Graduondokoa

Gure egoiliarrek Endokrinologia Zerbitzuaren barnean doktore-tesia egiteko aukera dute, Sonia Gaztambide Sáenz doktorearen zuzendaritzapean.

4. Etengabeko prestakuntza

BAMEek bezala, zerbitzuko medikuek saio klinikoetan parte hartzen dute, ebidentzian oinarritutako medikuntza-jardunbideen arabera; etengabeko prestakuntzaren zati garrantzitsu bat da hori.

5. Lehen mailako arreta

2005ean, lehen mailako arretarekin, irakaskuntza-jarduera bat jarri zen abian, tiroideko patologien (hipo/hipertiroidismoa, golo/nodulu tiroidea) eta obesitatearen zein diabetesaren gaineko deribazio-protokoloak sortzeko, zegozkien arlo-zuzendaritzekin koordinatuta. Lehen mailako arretarekin ezarritako lotura areagotu egin da azken urteetan historia elektronikoaren bitartez; horren adibide, kasu klinikoak eztabaidatzea.

6. Beste hezkuntza-jarduera batzuk

Medikuek, erizainek eta BAMEek Bizkaiko Diabete Elkartearen edo Diabetesaren Euskadiko Federazioaren hezkuntza-jardueretan parte hartu dute, hala nola diabetesa duten pertsonentzako ikastaroetan, eta diabetesa duten haurren eta nerabeen topaketetan eta udalekuetan.

7. Zerbitzu-zorroa

Gure zerbitzu-zorroa hemen dago eskura:

[Ospitalea > Endokrinologia Zerbitzuaren zerbitzu-zorroa>](#)



Prestakuntza-ibilbidea (txandaketak)

1. urtea:

- ❖ Endokrinologia eta Nutrizioa, *hilabete 1*
- ❖ Larrialdi orokorrak, *2 hilabete*
- ❖ Kardiologia, *2 hilabete*
- ❖ Neurologia, *hilabete 1*
- ❖ Barne-medikuntza, *3 hilabete*
- ❖ Nefrologia, *2 hilabete*
- ❖ Aparatu Digestiboa, *hilabete 1*

2. urtea:

- ❖ Endokrinologiako ospitaleratze-solairua – ospitaleko kontsulta-orriak barne –, *7 hilabete*
- ❖ Hormonen laborategia / Proba funtzionalak, *hilabete 1*
- ❖ Kirurgia endokrinoa / Neurokirurgia / Oin diabetikoaren kontsulta (K. baskularra) / K. bariatrikoa, *hilabete 1*
- ❖ Medikuntza Nuklearra, *hilabete 1*
- ❖ Tiroideko Ekografia, *hilabete 1*
- ❖ Giza-ugalketako unitatea / Ginekologia – Familia-plangintza, *2 hilabete*

3. urtea:

- ❖ Endokrinologiako ospitaleko kanpo-kontsultak, *6 hilabete*
- ❖ Nutrizio klinikoa, Nutrizio Kliniko eta Dietetikako unitatean, *2 hilabete*
- ❖ Nutrizio klinikoa, kanpoko zentro bateko Nutrizio Kliniko eta Dietetikako unitatean (Gregorio Marañón Ospitalea) *3 hilabete*

4. urtea:

- ❖ Endokrinologia pediatrikoa, *3 hilabete*
- ❖ Endokrinologia orokorreko kanpo-kontsultak / Kontsulta monografikoak / Endokrinologiako ambulatorioko kontsultak, *6 hilabete*
- ❖ Kanpoko txandaketa (atzerriko edo Estatuko zentro batean), *2 hilabete*
- ❖ Hautazko txandaketa, *hilabete 1*



Egoiliarak prestakuntza-aldiak egin ditzake kanpoan, atzerriko edo Estatuko zentroetan. Irakaskuntza-batzordeak eta gure zerbitzuak prestakuntza zentro hauetan jasotzea eskaintzen du:

- The Beth Israel Deaconess Medical Center (Boston)
- Joslin Diabetes Center (Boston)
- University of Norwich (Erresuma Batua)
- Cisanello Ospitalea (Pisa)
- Bicetre Ospitalea (Paris)
- Turineko Unibertsitatea (Turin)
- Carlos Haya Ospitalea (Málaga)
- Gregorio Marañón Ospitalea (Madril)
- Ramón y Cajal Ospitalea (Madril)
- 12 de Octubre Ospitalea (Madril)
- Clinic Ospitalea (Bartzelona)



Ikerketa

Ospitaleak ikerketa babesten du [BioCruces Ikerketa Institutuaren](#) bitartez.

Zerbitzuak zuzentzen dituen edo laguntzaile den ikerketa-ildoak:

1. Osasun-ikerketako funtsaren proiektuak

- CIBERDEM - Zerbitzuko zenbait medikuk hartzen dute parte: Gaztambide eta Cortázar doktoreak, eta Luis Castaño doktorea koordinatzaile-lanetan.
- CIBERER- Gaztambide doktoreak hartzen du parte.

2. Ikerketa-Proiektuak

- Azterketa epidemiologikoa eta angiotentsinaren ondorio molekularrak SARS-Cov2-aren infekzioaren pronostikoan
Espedientea : COV20/00421
Erakunde finantzatzailea: ISCIII Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa
Ikertzaile nagusia: Sonia Gaztambide
Zenbatekoa: 170.000 €
- Obesitatea: Doitasun-nutriziorako esku-hartzeak eta konponbide berriak.
Espedientea : KK-2019/00028
Ikertzaile nagusia: Sonia Gaztambide
Finantza Agentzia: Eusko Jaurlaritzak. Garapen Ekonomiko, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.
Zenbatekoa: 111.001 €

3. Saiakuntza klinikoak

Zerbitzuko kide guztiek hartzen dute parte saiakuntza klinikoetan. Saiakuntza kliniko horiek zerbitzuburuak ebaluatzen ditu lehenik, interes zientifiko handienekoak hautatzeko. Oraingoz, egoiliarrek ez dute modu aktiboan parte hartu; izan ere, asistentzia-jarduerak gauzatzeak saiakuntzako pazienteen beharrei arreta eskaintzeko aukerak murrizten dizkie. Egindakoaren gaineko informazioa jasotzen dute, behatzaile gisa parte hartu dezakete.

Hona hemen jarduera zientifikoari buruzko informazio xeheagoa:

[MEMORIA ZIENTIFIKOA](#)



Prestakuntzaren ebaluazioa

Ebaluazioa da ikaskuntza-motorra, indargune eta ahulguneak antzemanaz eta hobekuntza-planak zehaztuz. Ebaluazio mota horretarako; hots, **prestakuntza-ebaluaziorako**, gaitasunetan oinarritutako zenbait metodo kualitatibo erabiltzen ditu Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak (beherago aipatzen dira). Horiei esker, hainbat iturritako eta ikuspegitako informazioa lor dezakegu (gainbegiraleen ebaluazioa, hausnarketa pertsonala eta autoebaluazioa). Informazio horrekin, **Urteko Ebaluazio Batzordeak** txosten adostu bat egiten du; bertan, egoiliarren indarguneak islatzen ditu, bai eta hobetzeko-eremuak ere, egongo balira. Gaitasunetan oinarritutako txosten horrek eta egindako nahitaezko ikastaroen ziurtapenak **egoiliarren urteko espedientea** osatzen dute. Tutorea arduratzen da prestakuntza-prozesu guztia kudeatzeaz eta urteko espedientea entregatzeaz.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Endokrinologia eta Nutrizio Zerbitzuko BAMEek barneratu behar dituzten gaitasunak XXI. mendeko medikuaren zazpi gaitasun-eremuei dagozkie, Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak definitu bezala:

1. Balio profesionalak, jarrerak, jokabidea eta etika.
2. Pazienteen zaintza eta trebetasun klinikoak.
3. Ezagutza medikuak/Medikuntzaren oinarri zientifikoak.
4. Komunikazioa.
5. Osasun-sistemaren testuinguruan oinarritutako praktika (osasun-sustatzailea eta baliabide-kudeatzailea).
6. Ikaskuntzan eta hobekuntzan oinarritutako praktika (analisi kritikoa eta ikerketa).
7. Informazioa erabiltzea.

Espezialitatearen berezko laguntza-, irakaskuntza- eta ikerketa-gaitasunak [Endokrinologia eta Nutrizioko espezialitatearen programa ofizialean](#) jasotzen dira.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalearen ebaluazio-sistema orokorra¹.

Ebaluazio-sistema [Irakaskuntza Batzordeak](#) eta Gaitasunak Ebaluatzeko Batzordeak zuzentzen dute. Sistema hori Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea 2008az geroztik egiten ari den **“Gaitasunetan oinarritutako prestakuntza espezializatua”** proiektuaren barruan dago. **Ebaluazio metodoak** hauek dira:

¹ Morán-Barrios J, Amutio E, Barbier L, Carrasco A, Gil-Lemus MA, Gómez B, Iriberrri M, Padilla L, Rodríguez-Iñigo MA, Saá R, Larrañaga I, Nieto J, Udaondo J y González-Larragán S. Evaluación del residente basada en competencias. El modelo del Hospital Universitario de Cruces. XXI Congreso de la Sociedad Española de Educación Médica Madrid 2013. FEM 2013; 16 (2. gehig.): S62. Hemen eskuragarri: <http://www.sedem.org/resources/abstractsSedem2013.pdf>.



- a. Txandatze bakoitza zuzeneko gainbegirale batek ebaluatzen du, gaitasunetan oinarritutako formulario baten bidez (Gurutzeko Unibertsitate Ospitalearen eredu)
- b. Aldizkako elkarrizketak egingo dira tutorearekin (urtean bi, gutxienez)
- c. Autoebaluazioa
- d. Urteko memoria (egoiliarren liburuaren baliokidea), bi alderdi dituena: bereganatutako gaitasunei buruzko hausnarketa, batetik, eta laguntza-, irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren eta lanbidearekin erlazionatutako beste jarduera batzuen kuantifikazioa.
- e. Tutorearen urteko txostena, gaitasunetan oinarrituta.
- f. Ebaluazio Batzordearen urteko balorazioa.
- g. Irakaskuntza Batzordeak antolatzen dituen nahitaezko ikastaroak egitea.
- h. Urteko banakako espedientea, gaitasunetan oinarrituta.

Egoiliarren balorazioa jasotako prestakuntzaren inguruan.

1. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak gogobetetze-inkesta bat igortzen die Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliar guztiei urtero, apirilean.
2. Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak gogobetetze-inkesta bat igortzen du bi urtez behin, otsail-martxoan. 20 urte dira inkesta hori egiten dela.

Emaitzak zerbitzuei eta egoiliarrei jakinarazten zaizkie.



Osakidetza

EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA ENKARTERRI CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)**



Servicio de Endocrinología



Servicio de Endocrinología